

## PRENTSA OHARRA

### Dastatu Gabonak Guggenheim Bilbao Museoa

Edonolako publikoarentzako hezkuntza jardueren egitarau zabalak BBKren babesari esker

Gabonetako apaingarri jangarriak, objektu harrigarri bihurtzen diren izeiak, rock Gabon kantak, dantza, antzerkia eta arrastoen jolas bat izango dira Guggenheim Bilbao Museoko jardueretako batzuk abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra artean, 3 eta 12 urte bitarteko haurdun familientzat eta helduentzat.

Abenduaren 20tik hurrera Guggenheim Bilbao Museora hurbiltzen diren 3 eta 12 urte bitarteko haurrek **Arrastoen jolasa!** jarduera dibertigarrian parte hartzeko aukera izango dute: jolas horren bidez, ikusgai dauden artelanetatik ibili eta proposatutako misterioak ebatziko dituzte; hala ikusiko dute zer gertatuko litzatekeen horma bat Gabonetako kolorez margotuko balute, eta, gainera, misterioak ebatztean opari bat jasoko dute informazio-mahaian.

**Artearen Izkina**n 2 eta 8 urte bitarteko haurrek Gabonetako apaingarriak egingo dituzte, batzuk jangarriak. Txoko hau zabalik egongo da abenduaren 20an, 21ean, 26an, 27an, 28an eta 30ean eta urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean 11:00etatik 17:00etara.

Abenduaren 26an, 4 urtetik gorako haurrek desio onez, kolorez eta magiaz betetako ikuskizunera joateko aukera izango dute **Engruna Teatre**ren eskutik. **Posta kodea 00** emanaldian urte berria eskuz idatziz zoriontzeko eta eskutitza postontzi bidaiari batean uzteko proposatuko zaie. Ikuskizunean aurreko emanaldi batera joandako haurren mezuak irakurriko dituzte, eta egun horretako gutunak etorkizunean, konpainiako beste emanaldi batean, irakurriko dira. Horrela ikasiko dute txikiak orain gutxi arte hitzek, sentimenduek eta ideiek paperean bidaiatzen zutela. Bi emanaldi izango dira: 12:30ean euskaraz eta 18:00etan gaztelaniaz.

Horrez gain, helduen **gaur egungo dantza** ikuskizun batez gozatzeko aukera izango dute, **La Intrusa** konpainiari esker. **The Best of You** du izenburua lanak eta horretan hiru dantzarik tentsioz betetako partituran zeharreko bidaia egingo dute, asmo onak gordeta lasaitasunaren bila. Museoko Entzungen izango da emanaldia, abenduaren 27an (larunbata) 19:00etan.

Hurrengo egunean, abenduaren 28an, 18:00etan rock Gabon kantak beteko da Museoko Entzungen. **Rock'n'kids Band** taldeak energia askoko kontzertu bat emango du 3 urtetik gorako haurrek eta helduek Gabonetako erritmo askotako musikan eta dantzan murgil daitezela.

Egun hauetan ohi denez, Museoko Lagunen seme-alabek **Gabonak eraldatu** haietzako tailer berezian parte hartzeko parada izango dute: euskaraz abenduaren 26an eta 30ean eta urtarrilaren 3an, eta gaztelaniaz abenduaren 27an eta urtarrilaren 3an. Partaideek Gabonekin lotutako objektuak, esaterako izeiak, hartu eta material harrigarriak erabiliz eraldatuko dituzte. Gabonetako zuhaitz moderno eta bereziak sortuko dituzte, forma geometrikoz, zenbakiz eta kolorez betak. Tailerrak adin tarteka banatzen dira, bi taldetan: 3 eta 5 urte bitartekoak (11:00etako eta 17:00etako txanda) eta 6 eta 10 urte bitartekoak (17:00etako txanda).

Gainera, abenduaren 20tik aurrera Museoko hezkuntza gunean **Gabonetako posta txartel**en erakusketa izango da. Posta txartel horiek azken zortzi urtetan Gurutzetako ospitalean ingesatutako haurrek

# GUGGENHEIM BILBAO

egindakoak dira; haurrok 2007tik Guggenheim Bilbao Museoan Gurutzetako eta Basurtuko ospitaletan antolatutako *Sortu eta sendatu!* sormen-tailerretan parte hartutakoak dira.

Azkenik, abenduaren 24an eta 31n, 10:30etik 16:30era, eta urtarrilaren 5ean, 10:30etik 19:30era, Yoko Onoren **Nahien zuhaitza** lanean esku hartzeko aukera izango da. Museoko bigarren solairuko terrazan dago zuhaitza, eta parte hartu nahi duenak aretoetako orientatzaileei galdetu diezaieke artelanean nola parte hartu, baita artelanaren inguruko beste argibide batzuk ere.

## GABONETAKO AGENDA

- **Arrastoen jokoak**- Abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra. 3-12 urte
- **Artearen Izkina**- Abenduaren 20a, 21a, 26a, 27a, 28a eta 30a eta urtarrilaren 2a, 3a, 4a eta 5a, 11:00-17:00. 2-8 urte
- **Posta kodea 00**- Engruna Teatre- Abenduaren 26a, 12:30 euskaraz eta 18:00 gaztelaniaz. 4 urtetik aurrera
- **The Best of You**- La Intrusa- Abenduaren 27a, 19:00. 18 urtetik gorakoentzat
- **Rock'n'kids Band**- Abenduaren 28a, 18:00. 3 urtetik aurrera
- **Gabonak eraldatu** tailerra - Abenduaren 6a eta 30a eta urtarrilaren 3a euskaraz eta abenduaren 27an eta urtarrilaren 2an gaztelaniaz. 3-5 urte (11:00 eta 17:00) eta 6-10 urte (17:00).
- **Gabonetako posta txartelen** erakusketa-Abenduaren 20tik aurrera.
- **Nahiez zuhaitza**-Abenduaren 24a eta 31<sup>a</sup>

Sarrerak salgai txarteldegian eta Museoaren webgunean  
Argibideak (ordutegiak eta prezioak barne): [www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es).

Bilbon, 2014ko abenduaren 9an